



PRENTSA OHARRA 2019.07.04

Bikaintasuna Euskal Ikasketetan IX ikastaroak euskal kultura eta eremu digitala izango ditu hizpide aurten

Ikastaroa uztailaren uztailaren 10 eta 11n izango da eta matrikulazio epea zabalik dago parte hartu nahi duen edonorentzat

Etxepare Euskal Institutuak, urtero bezala, Euskal Irakaskuntzaren inguruko ikastaro bat antolatu du UPV-EHUko Udako Ikastaroekin lankidetzan, **Garbiñe Iztueta Goizueta**, Etxepare Euskal Institutuko Euskararen Sustapen eta Hedapenerako zuzendariaren gidaritzapean. Ikastaroaren helburua Etxepare Euskal Institutuak munduan zehar duen irakurletza sareko euskara eta euskal kultur irakurleei formakuntza ematea da. Hala ere, ikastaroa interesa duen edonorentzat dago zabalik.

Etxepare Euskal Institutuaren irakurletza sarea Euskal Herritik kanpoko **35 unibertsitatez osatua dago** eta horietan **euskara eta euskal kultura** irakasten duten **irakurleak 30** dira. Institutuak haien formakuntza bultzatzeko hainbat ikastaro antolatzen ditu urtean zehar, eta hau da horietako bat.

Aurtengo udako ikastaroak ***Bikaintasuna Euskal Ikasketetan IX. Euskara eta euskal kultura eremu digitalean*** du izena, eta teknologiak eta eremu digitalak euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan duen eragina jorratuko da bertan. Horretarako, Etxeparek **teknologia, hizkuntzalaritza eta euskal kulturaren jakintza arlo desberdinetako adituak** gonbidatu ditu.

Programaren egitarauan agertzen den bezala, irakaskuntzarako tresna digitalak, kultura digitalizatua, irakaskuntza eta IKTak, sare sozialak, euskal literatura eta artea



garai digitalean, Wikipedia irakaskuntzarako tresna gisa edota ikus-entzunezko kultura eskolak bezalako gaiez hitz egingo da.

13 adituk emango dituzte hitzaldiak aurten: **Iker Arranz Otaegui** (Santa Barbarako Unibertsitateako irakaslea), **Abel Camacho Romero** (Santurtziko Udal Euskaltegia), **Ane Castelruiz Garcia** (San Patricio ikastetxeko irakaslea), **Iratxe Esparza Martin** (UPV/EHUko Literatura saileko irakaslea), **Izaskun Etxeberria Uztarroz** (UPV/EHUko irakaslea), **Itziar Gonzalez Dios** (UPV/EHUko irakaslea), **Miren Ibarluzea** (UPV/EHUko irakaslea), **Mikel Iruskieta** (UPV/EHU, HEZikt Berezko Tituluko zuzendaria), **Arantza Lauzirika Morea** (UPV/EHUko dekanoa), **Iñaki Lopez de Luzuriaga Martinez** (Euskal Wikilarien Kultura Elkarte), **Detmar Meurers** (Tübingeneko Unibertsitateko irakaslea), **Amaia Orbe Barrio** (Berlingo Freie Unibertsitatean irakurle) eta **Xabier Paya Ruiz** (Kultur kudeatzailea).

Ikastaroa Donostiako Miramar Jauregian egingo da eta 20 orduko balio akademikoa izango du. Horrez gain, amaitzean titulu bat emango zaio parte hartu duen orori. Matrikulatzeko epea zabalik da honezkerok; [esteka honetan](#) aurki daiteke informazio osatua eta izen-emate orria.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus